

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gaztelu



Aurkibidea

Udalerria: Gaztelu

Sarrera



Gaztelu Gipuzkoako ekialdean dagoen landa-udalerria da. Nafarroako mugan egonda, historian zehar hainbat liskar eduki izan ditu, izan ere herriaren izenak iraganaldi militar hori iradokitzen du. Iparraldean Belauntza eta Elduain ditu mugakide, hegoaldean Orexa eta Lizartza, ekialdean Berastegi eta mendebaldean Leaburu. 1966 urtean Leabururekin batu zen Leaburu-Gaztelu udalerria osatzeko. Biztanleen eskaerei erantzunez, 1995 urtean banandu eta udalerria osatu zuen berriro.

- **Biztanleak:** 172
- **Euskaldunak:** %88,23

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **15**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Maria Albisu Irizar (1909)



Leaburuko Artetxe baserrian jaio zen, aitaren jaiotetxean. Hala ere, Gaztelukoa dela dio, bertakoa sentitzen baita. 103 urte ditu eta ez dirudi urteen pisua nabari duenik, osasuna bezain ona baitu umorea. 24 urte zituenean, Jexux Gustiz Armendariz leaburuarrarekin ezkondu zen; eta, harrezkero, 5 seme-alaba, 9 biloba eta 11 birbiloba izan ditu. Gazteluko tabernan lan egindakoa da, eta horretaz mintzaitu zaigu, besteak beste.

Esteban Aranzabe Etxeberria (1937)



Goienetxe baserrian jaioa, belaunaldiz belaunaldi maiorazko bidez pasatzen joandako etxean; izan ere, Joxe Manuel aita zen hangoa, eta aitona, eta birraitona... Ama ere Gaztelukoa zuen, Tiburcia, Ixurrenea baserrikoa. Baserritarrak zituen gurasoak eta hala izan da bera ere, txiki-txikitatik baserrian gogor lan eginez eta kaleko lana uztartuz atera izan baitu bizimodua aurrera. 19 urterekin, igeltsero-lanetan hasi zen Antonio Amondarainekin, soldaduskara joan zen arte. Bueltan, nagusia aldatu zuen, baina lanbide berarekin jarraitu zuen. 29 urterekin, [Kattalin Zubelzu Ayestaran](#)ekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Ezkondu zen urtean sartu zen Perot lantegian, eta erretiroa hartu arteko lanak hantxe egin zituen. Besteak beste, soldaduskako garaiaz, Gazteluko bizitzaz, eta baserriaren lehenaz nahiz orainaz hitz egin digu.

Josefa Agustina Barriola Mintegiaga (1924)



Gazteluarrak zituen bai aita eta bai ama, Elketakoa bata eta Erregineneakoa bestea. Bera Elketan jaioa da, txikiak zirela beste baserri batera bizitzera joan baziren ere. Bi anai-arreba ziren etxean. Lanerako jende gutxi zuten, beraz, etxean, baina hala ere aurkitzen zuten jolaserako denbora ere. Orduko haurren ibilerez hitz egin digu.

Mari Carmen Goikoetxea Etxeberria (1936)



Lizartabide baserrian jaio zen, aitaren jaiotetxean, Gaztelukoak baitzituen gurasoak, Bittor eta Josefa. 11 senidetan seigarrena, 13 urte zituela atera zen etxetik neskame-lanetan aritzeko. Lizartzan aritu zen 6 urtez; eta, gerora, Tolosako beste bi familiatan jarraitu zuen lanean, harik eta 27 urterekin [Juanito Etxeberria Ganzarain](#)ekin lbarrara ezkondu zen arte. Neskame-lanean buru-belarri aritu arren, arratsaldero joaten zen josten ikastera ahizparekin batera, oso gustuko baitzuen. Besteak beste, emakumearen paperaz, bizimoduaren aldaketaz eta Gaztelun egon zen ermitaz hitz egin digu.

Juan Jauregi Aiestaran (1928)




Gazteluko Iriarte baserrian jaioa. Aita eta ama Gaztelukoak zituen; ama Bordatxurikoa eta aita jaiotetxe berekoa. Bost senidetan bigarrena da bera. Artzaintza txikitatik izan zuen gustuko, eta gaztetan artaldea hartu zuenetik artzain aritu izan da beti.

Peio Muxika Urtzelai

Baserriko lanen inguruko azalpena ik ematen ditu.

Kattalin Zubelzu Ayestaran (1938)



Jose Martin Zubelzu Etxeberria eta Maria Asunción Ayestaran Luluaga gaztelutarren alaba, Tomasenean jaio zen. Hamaika senidetan hamargarrena, txiki-txikitatik baserrian lagundu behar izan zuenez, artzain aritzen zen, etxeko lanetan laguntzen aritzearekin batera. Gurasoen baserriak taberna zuen etxe azpian, eta hango lanetan ere aritu zen sarri. 19 urterekin, neskame joan zen anaiaren etxera eta bi urte beranduago Tolosako Aparicio dendan hasi zen; bost urtez aritu zen bertan lanean. 25 urterekin, [Esteban Aranzabe Etxeberria](#) rekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. Ibarran hartu zuten bizitokia eta bertako abesbatza jardun izan da azken urteotan. 16 urtean aritu izan da elizako arrosarioa gidatzen, eta katekesiko irakasle ere izan da beste hainbeste urtean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Inguruko herrietako festak

- **Hizlaria(k):** Barriola Mintegiaga, Josefa Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** GAZ-001/018
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:48:31. **Bukatu:** 00:49:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Txikitan diru gutxi ikusi zuten, festetara joateko ematen zieten. Inguruko herrietako festetara joaten ziren. Festa onenak herrikoak ziren. Musika pixka bat izatea nahikoa zen.

Transkripzioa

-Zuek ordun diruik ume ziñatela ikusten al zenuen txanponik.

-Ez, ez guk ez, noabaitte jun behar bagendun ematen baziguen pezta bat o bi o festetan, hemendik Lizartza festa, Oreja festa ta hola, hoik bi herri hoik, gero Leaburu bestea, hiru. Hiru herri hoita juten giñen, gaiñentzen ni enaiz jun beste bestetan izan, nere denboa hiru herri haitako festata. Geo Altzon gendun izeba bat, harea ezkondu, aitten arreba ta, harea jun ta beste bi egun o itten bagiñun festatan, hiru egun batzutan ta, hola.

-Ze, ze festa zian onenak.

-Herriko festak, jo, txistue aittu ezkeo o akordeona pixkat aittuzkeo nahikua bazan hotsa zerbaitte [...] aittuzkeo nahikua bazan. Ordungo festak uan

gaurko musikaik onena baiño hobea zan. Tik uain gaurko musikaik ezti ezer entenitzen guk eta [...].

-Ordun ze izaten zan festetan, juntatu dantzako ta ahal zan gorana jaso besok eta jo ta fuego?

-Jo ta fuego.

2. Familia eta harremanak

2.1. Herrikoak bertakoekin ezkontzen ziren

- **Hizlaria(k):** Barriola Mintegiaga, Josefa Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** GAZ-001/019
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:49:43. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Festetan dantzari onenak zeintzuk ziren begiratzen zuten. Batzuk isilka ibili ondoren ezkontzen omen ziren. Herrikoak herrikoekin ezkontzen ziren normalean. Gauean azkena erretiratzen zena nor zen denok zekiten.

Transkripzioa

-Ordun nobiyua billatzeko re garai earra izango zan festa garaia, zeifiek dantza ondona in ta zein fiñena ta.

-Bai, dantzarik onena zein zan ikusteko behintzat bai. Gaiñeko ez dakit, ez dakit. Batzuk bat'e akordatu gabe ezkontzen emen zien, iñor akordatu gabe.

-Nola?

-Ixilik, sekreton, gauez hitz ein ta itten emen zien, denbo bateako.

-A bai e?

-Bai, hala esaten zuen, hoi bai. Ez hola, urtetan ta, plazan ta, herritan ta ibillita ez. Hitz ein, bestalde hitz einda, herrin, e zea, matrimonio asko ziela esaten zuen beiñe iñork alkarrekin ikusi gabekok. Bai.

-Normalena ordia, bestelakua izango zan ezta? Hola ezautu ta.

-Bai, herri, gaiñea herriñ herrikoa zan asko, ordun, herriñ herrikoa, bai, kanpotiken zea gutxigo, ez dakit hue nola izaten zan kanpo herrin, herrikoik'e ez zan juten beste herria eta, o launtzaz o nola itten zien, matrimonio hoik ez dakit.

-Neska launtzea're ahal zan hurbillena nahiyo igual.

-Bat ez askotan.

-Ez e.

-Ez, eun argiz mutillek'e lotsatu ta neskake bee garaian alde in ta, karo. Gauezkoak ibilliko zien, ordun'e izango ziela esaten det /esatet/ nik, izango zien akasko baiño, haik distintiboak zien, haik'e bazuen distintibo difeentia, belaxe, gauen azkena ibiltzen zana ta, gauen azkena erretiratzen zana ta bazittuen linguak'e esaten zittuen kontuk, beti, beti izan da hoi, beti, uaiñ'e hala izangoa ta gero're bai. Uaiñ berriz, eguna argittu arte eoten die /eoteie/ denak eta, uaiñ eztao.

-Uaiñ e hamabik jota kalea.

-Bai ta gerogo're, afaldu ta gero, aimarik ya erretiratu, baiño, baiño gero, afaldu ta gero kalea asko, eske gaiñea ezer eztala eoten esaten due /

esateue/ aurreaotik junda ta hola, ta.

-E, ordun esaten zizuen mutillekin ta kontuz ibiltzeko, bildurra bazan gaez bidetan ibiltzeko o.

-Bai, hoi haundie zuen lehengo zaharrak, bai, bai. Illuntzen erretiroak e bakoitzak beai asko launduko ziola gaiña, bee garaien erretiatu ta, zeatzen zana, asko, ez dakit /eztait/.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Jaiotetxea utzi eta beste baserri batera bizitzera (GAZ-001/002)

Jaiotetxea, Elketa baserria, plazatik gertu geratzen zen baina etxe txikia eta terreno gutxikoa zelako, baserriz aldatu ziren gurasoak Josefak zortzi urte zituenean. Maizter joan ziren Gazteluko beste baserri batera, egun Josefa bertan bizi da. Baserriko nagusia Adunakoa zen baina Baionan bizi zen. 1949an baserria erosi egin zuten.

2. Umeen jokoak (GAZ-001/004)

Etxea aldatzearekin lagunak aldatu zitzaizkion, baina garai hartan umeak etxe guztietan ziren, ez orain bezala. Garai bateko Gaztelun ume asko zeuden. Plazan eskola zegoen. Neska-mutilak jolasean ibiltzen ziren, borrokan, sokasaltoan, pilotan... Joko haiek nolakoak ziren azaltzen du.

3. Gazteluko eskolako kontuak (GAZ-001/006)

Etxean lana beti zegoen. Umeek ere laguntzen zuten. Josefaren etxean eskolari garrantzia ematen zioten. Aitak eskola pixka bat bazuen eta hura inportantea zela pentsatzen zuen. Eskolan adin desberdinetakoak nahasirik zeuden. Maistrak erdaraz erakusten zuen eta umei kosta egiten zitzaien. Eskolan lanak ongi eginez gero puntuak ematen zizkien.

4. Eskolan maistra erdaldunak (GAZ-001/007)

Gaztelun ez zegoen erdaldunik. Erdaraz neskame ibilitakoak bakarrik zekiten. Eskolan erdaraz ikastea kosta egiten zitzaien. Eskolan beti maistrak egoten ziren, maisurik ez. Maiz aldatzen zituzten. Garai batean maistrak Gaztelun bertan bizi ziren baina beranduago Tolosara joaten ziren bizitzera.

5. Eskola baino garrantzitsuago, dotrina (GAZ-001/009)

Eskola baino garrantzitsuagoa dotrina zen. Apaizak lehiaketa antolatzen zuen dotrinaren inguruan eta puntuak banatzen zituen. Igande arratsaldeetan zozketak egiten zituzten puntu haiek erabiliz. Dotrina errekreio garaian edo arratsaldeetan ikasten zuten. Dotrina euskaraz ikasten zuten. Etxean ikasi behar izaten zuten, aitaren laguntzaz.

6. Gabonak eta Santa Ageda (GAZ-001/011)

Gabonetan turroia izaten zen baina gutxi, dirurik ez zegoen eta. Garai batean abestera ez ziren ateratzen. Santa Ageda egunean ateratzen ziren eskera. Etxez etxe ibiltzen ziren eta janaria ematen zien ondorengo egunetan herriko

etxean afaria egiteko. Mutilak bakarrik ateratzen ziren. Eskean zebiltzala abestu egiten zuten.

7. Eguberriak gutxi ospatzen ziren (GAZ-001/012)

Gabon gauean afari berdintsua izaten zuten, agian pixka bat hobea. Eguberri eguenean bazkaria egiten zuten etxean eta ahaideren bat etortzen zen. Igande bat balitz bezala ospatzen zuten. Garai hartan ez zen Olentzero ez Erregerik pasatzen. Urte zahar gaua ez zuten ospatzen.

8. Gazteluko festak (GAZ-001/013)

Urteko egun handiena Ama Birjinaren eguna izaten zen, herriko festak zirelako. Erroskillak saltzera etortzen ziren herrira. Txistua jotzen zuten. Ave Mariatarako etxera joan behar izaten zuten. Egun haietan etxean lana handia izaten zen, baina Ama Birjina egunean denak jai egiten zuten.

9. Arropa berria festetan estreinatzen zuten (GAZ-001/014)

Festetarako arropa berria estreinatzen zuten askotan. Soinekoak beso erdikoak eta belaunaren azpirainokoak izaten ziren. Bata antzekoak ziren. Ilean trentzak egiten zituzten baina amak hura lana handia zela esaten zien. Beranduago permanentea egiten hasi ziren. Garai hartan ile kizkurra gehiago gustatzen zitzairen. Ilean elkarri izurrak egiten ibiltzen ziren. Izurrak egiteko zerbeza erabiltzen zuten batzuk. Erruloak beranduago hasi ziren. Lepokoa ezkontza egunean jarri zuen. Jertse bakarra besterik ez zuten.

10. Neskame joaten zirenak aldatuta itzultzen ziren (GAZ-001/015)

Garai batean jendearen artean orain baino desberdintasun gutxiago zeuden. Kanpora neskame bezala ateratzen zirenak izaten ziren aldatzen hasten zirenak. Haiek arropa hobeagoak izaten zituzten.

11. Gazte asko zeuden eta oso pozik bizi ziren (GAZ-001/016)

Oso pozik bizi ziren. Jai arratsaldeetan nonahi dantzan hasten ziren. Herrian gazte asko zeuden. Ondoko etxeetakoekin lagunak ziren. Elizatik ateratakoan kontutan geratzen ziren. Gero etxera joan behar zen, lana egitera. Gaurko egunean ez dago hainbeste konfiantza herrikoen artean. Herrian sekretu gutxi zegoen, denon kontuak jakiten ziren. Kanpora joaten zirenak kontu berriak ekartzen zituzten.

12. Azokara ondoko baserrikoekin txandaka joaten ziren (GAZ-001/017)

Tolosako azokara joaten ziren ondoko baserrikoekin txandaka. Beranduago mutil batzuk lanera atera ziren. Horretarako dirua behar zen.

13. Udaran lana handia zegoen (GAZ-001/021)

Udaran belarretan lana egin behar izaten zen. Etxean bi neska bakarrik zirenez laguntzera joan behar izaten zuten. Beranduago sega egiteko makina erosi zuten. Halere lana egin behar. Ume asko zituzten etxean denak mantentzeko asko behar zela esaten zuten, baina, gutxi zirenak, lanerako ere gutxi. Jornala irabazteko Gaztelu urruti geratzen zen. Garraio biderik ez zuten. Hasieran bizikletaz joaten ziren, eta gero motorrean.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com